

Fiskalitatea Hego Euskal Herrian
Egoeraren azterketa eta proposamenak

2019ko maiatza



www.lab.eus

AURKIBIDEA

SARRERA	05
HEGO EUSKAL HERRIKO PRESIO FISKALAK EUOPAR BATASUNeko BAXUENETAKO BAT IZATEN JARRAITZEN DU.....	06
DIRU BILKETAREN BI HEREN, HAUEN GAINEAN GAITASUN ARAUTZAILERIK EZ DUGUN ZERGA-FIGURETATIK DATOR.....	08
ZERGA SISTEMA EZ DA OSO BERBANATZAILEA ETA IA EZ DU LAGUNTZEN ERRENTEN ARTEKO ALDEAK MURRIZTEN.....	09
Kotizazio sozialak ere fiskalki erregresiboak dira.....	11
Lurraldean arteko lehia fiskalak, iruzurrak eta hau mosteko borondate politiko faltak sarrera fiskalen eskandaluzko galera sortarazten ditu	12
Ondorioak	14
PROPOSAMENAK ERREFORMA FISKAL BERBANATZAILE BATERAKO	14

Sarrera

Gero eta arreta gehiago ematen zaie justizia sozialarekin lotutako arazoei, edo gutxienez hori da errenta eta aberastasunaren banaketaren inguruko ikerketak etengabe argitaratzeak sortarazten duen inpresioa.

Hala ere, ikerketa guztiak bat datoz mendebaldeko herrialdeetan desberdintasunak areagotu egiten ari direla esaten, Euskal Herrian ere isla duen joera.

Honek esan nahi du gizarte hausturaren larritzeagatiko kezka gora doala, baina honek ez duela eragin egokirik politika publikoetan, hauek botere politiko eta ekonomikoaren guneetan hartzen diren erabakiek baldintzatuta baitaude.

Honako hauek nabarmendu ditzakegu desberdintasun ekonomiko eta sozialen larritzea eragin duten faktore bezala.

- Krisi ekonomikoarekin batera enpleguaren suntsiketa larria etorri zen, eta honek, errenta primarioa (edo merkatukoa) modu desberdin eta injustuagoan banatzea ekarri zuen. Ondoren, suspertze ekonomikoaren ondorioak ere modu desberdinduan banatu dira biztanleen artean, nagusiki prekarietateak gora egin duelako eta soldatek behera, eta hauen artean baxuenak dira eragin handiena jaso dutenak.
- Aurrekontu murrizketek ahuldu egin dute zerbitzu publikoen prestazioa eta politika publikoen estaldura orokorrean. Murrizketa hauek gehien kaltetu dituzten sektoreak klase apalenak eta diru-sarrerarik baxuenak dituztenak dira, hauek baitira desberdintasunaren eraginak zuzendu eta oinarritzko salgai eta zerbitzuetarako sarbidea bermatzera bideratutako gastu publikoaren jasotzaile nagusiak.
- goeko hamarkadatik hona erreforma fiskal gehienek norabide erregresiboa izan dute. Zeharkako zergek pisua irabazi dute zerga-egituran eta horrekin desberdintasuna areagotzea lagundu dute, errentarik baxuenentzat karga fiskal handiagoa suposatzen duten neurrian. Modu paraleloan, zerga zuzenen bilakaerak ere ahuldu du sistemaren gaitasun birbanatzailea: errentarik altuenak zergapetzen dituzten gehieneko tipoak txikitzea, eta fiskalitatea murrizeta kapitalaren errenta, irabazi enpresarial, ondasun handiak eta heredentziak.

Bestalde, badago nahikoa arrazoi pentsatzeko lan-merkatuaren bilakaera dualitate eta soldata-polarizazio handiagoak markatua etorriko dela, soldata arrakala zabaltzea ekarriko duena.

Enpleguaren etorkizuna aldaketa sakonei egin beharko die aurre ekoizpenaren automatizazioa eta ekonomiaren digitalizazioa dela eta. Baina eraldaketa teknologikoko prozesu honekin batera datorren ziurgabetasun handiak eragotzi egiten du aurreikuspen zehatz eta zuhurra egitea bere eraginari buruz enpleguari dagokionean.

Hala ere, ez dago zalantzarik, eta horrela adierazten dute ebidentziek, lan merkatua progresiboki polarizatzen ari dela.

Errutinazko ataza eta erdi mailako kualifikazioetan oinarritutako enpleguak erraz automatiza daitezke eta makina edo bestelako kapital teknologiko batek ordezkatu ditzake. Kontrara, kualifikazio profesional eta gaitasun analititiko handiagoa eskatzen duten lanbideek ez dute automatizatuak izateko horrenbesteko arriskurik, eta berdina gertatzen da errutinazkoak ez diren baina kualifikazio baxukoak diren esku-lanekin.

Prozesu honek edi mailako kualifikazio eta soldatei lotutako lanpostuak ezabatzea ekarriko du. Enplegu berrien eskaria goi kualifikazioa eta soldata altudun lanbideetan kontzentratuko da bien bitartean, eta baita kualifikazio eta soldata apalagoak dituzten enpleguetan.

Testuinguru honetan, premiazkoa da desoreka sozialak handitzearen inguruko kezka, desberdintasun sozialen kontrako borrokan inplikaturako tresna publikoen egitekoa indartzearen aldeko konpromiso politiko bihurtzea da.

HEGO EUSKAL HERRIKO PRESIO FISKALAK EUROPAR BATASUNEKO BAXUENETAKO BAT IZATEN JARRAITZEN DU


Ekonomia baten presio fiskala aztertu eta inguruko herrialdeekin konparatzeko, ohikoa izaten da jasotako zergen bidezko sarrera eta ekonomiaren tamainaren, BPGean neurtuta, arteko ratioa kalkulatzeko.

Konparazio hori egiteko helburuarekin EUROSTAT Europar Batasuneko estatistika-bulegoak erabilitakoa hartuko dugu zerga bilketaren definizio bezala, zuzenekeko eta zeharkako zergetatik eta kotizazio sozialetatik eratorritako sarrerak barnebiltzen dituen.

Logikoki, lortutako presio fiskalaren mailak zehazten du administrazio publikoetako politikak finantzatzeko eskura dagoen baliabideen bolumena, izaera birbanatzailea duten politika sozialak barne.

Baina politika hauetara bideratutako gastuaren zenbatekoa ez da desoreka sozialak orekatu eta aukera berdintasuna sustatzeko duen potentziala azaltzen duen faktore bakarra; gastuen zein sarreren politika publikoak ze eraginkortasun birbanatzaileekin egiten diren ikusteak ere bere eragina dauka.

Europar Batasuneko presio fiskala, BPGaren portzentaia bezala (2017)



Iturria: Norberak egina, Eurostat, Eustat, Nastat, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu eta Gizarte Segurantzaren Altxortegi Orokorra.

Presio fiskalari dagokionez, azken estatistika ofizialetatik ateratzen dugun lehen konstatazioa da Hego Euskal Herriko sistema zergak dirua jasotzeko ahultasun handia duela erreferentziatzko beste ekonomia batzuekin konparatzen badugu.

EAEko zerga bidezko diru-sarrerak BPGaren %31,7 dira eta Nafarroan, %30,4 inguru. Hortaz, Hego Euskal Herriko batazbesteko presio fiskala BPGaren %31,4 inguruan kokatzen da.


Ratio hau Europar Batasuneko (EB 28) batazbesteko diru-bilketa mailaren oso behetik dago. 2017an BPGaren %39an kokatu zen eta Eurogunean %40,2an.

Europar Batasunean 5 soilik dira gurea baino presio fiskal apalagoa duten estatuak: Letonia, Lituania, Bulgaria, Errumania eta Irlanda.

Gainera, dirua jasotzeko ahultasun hau denboran mantentzen den konstante ba bihurtu da. Izan ere, presio fiskalaren bilakaerak ez du inolako aurrerapausorik ekarri Europako batazbestekoetatik bereizten gaituen diferentziala zuzentzeko.

Zentzu honetan, bi aldiz etsigarria da Europar Batasuneko atzeko lekuetan gaudela zerga politika gaitetan, eta presio fiskal apalena duten ekonomia europarren taldean.

Presio fiskalaren diferentziala EB eta Eurogunearekiko (2007-2017)



Iturria: Norberak egina.

2017an, Hego Euskal Herriaren presio fiskalaren diferentziala eurogunearekiko BPGaren 7,6 puntutan kokatu zen, urtean 7.150 milioitako kopuru itzela suposatzen duena.

DIRU BILKETAREN BI HEREN, HAUEN GAINEAN GAITASUN ARAUTZAILERIK EZ DUGUN ZERGA-FIGURETATIK DATOR

Diskurtso ofizialak behin eta berriro errepikatzen du "zerga sistema propioa" esamoldea, Kontzertua eta Hitzarmen Ekomikikoan oinarrituta, foru instituzioei aitortutako konpetentzia fiskalen inguruan hitz egiteko. Hala ere, esaldi honek irudi faltsua eta errealitateetik urrun dagoena islatzen du Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarrokoa foru-lurraldeen benetako zerga-gaitasunaren inguruan.

Lehenik eta behin, gogoratu behar dugu presio fiskal totalaren kalkuluak kontribuzio sozialengatik bilketa barnebiltzen duena eta bere pisua %35,2koa da sarrera guztien egiturari. Biana Estatua da konpetentzia eskusiboak dituen oinarritzko legeria eta Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoan.

Beste alde batetik, zerga kontzertatuengatik diru bilketak zerga bidezko sarreraren %61,4 inguru suposatzen du. Hala ere, foru ogasunek zuzeneko zergen inguruan soilik dute gaitasun arautzaile zabala, tributu kontzertatuengatik sarreraren erdia baino gutxiago suposatzen dutenak. Baina zeharkoa zergak arautzeko konpetentzia hutsaren hurrenekoa da, araudi estatalari lotuta baitaude.

Hego Euskal Herriko zerga egitura (2017)

Tributu kontzertatuak	%61,4
• Zerga zuzenak	%28,0
• Zeharkako zergak	%32,9
• Tasak eta bestelako sarrerak	%0,5
Kontribuzio sozialak	%35,2
Udal zergak ¹	%3,4
DIRU-SARRERA FISKALAK GUZTIRA	%100

Iturria: Norberak egina

Azken finean, zerga gaitan dagoen konpetentzien banaketaren azterketa objektibo eta zintzoak erakusten du bilketaren zati handiena euren arautzea Estatuaren esku dagoen zerga-figuretatik dator. Bien bitartean, Hego Euskal Herriko instituzioen gaitasun arautzailea (udal mailakoak barne) zerga-bidezko sarreraren %32 soilik suposatzen duten tributuetara dago mugatuta.

Hortaz, erregimen foralek ez dute zerga sistema propioa eta Estatutik aldentutakoa osatzen, azken honen luzapen antzerako bat baizik, eta horregatik, ezaugarri berdinak eta hutsune beretsuak dituzte.

ZERGA SISTEMA EZ DA OSO BERBANATZAILEA ETA IA EZ DU LAGUNTZEN ERRENTEN ARTEKO ALDEAK MURRIZTEN

Zerga sistemaren helburu nagusia baliabide nahikoa biltzen dela ziurtatzea da, zerbitzu publiko aurreratuak eta jendarte osoaren beharrezkoak babes sozial egokia bermatzeko.

Baina politika publikoen eragin birbanatzailea ezagutu nahi badugu nola eta nortzuk finantzatzen dituzten jakin behar da, hau da, nola biltzen diren zergak eta nork ordaintzen dituen.

Izan ere, zergak politika ekonomikoko tresna oso indartsua dira eta funtzio birbanatzaile garrantzitsua beteko gaitasuna dutenak errenten banaketa ekitatiboagoa lortzeko helburuarekin, horrela, jendarte justu eta demokratikagoa eraiki ahal izateko.

Horretarako beharrezkoa da zerga politikak fiskalitate profresiboko irizpideei erantzutea, karga fiskalak modu justuan bana daitezen eta gaitasun ekonomiko handiena dutenek ordain ditzaten zergak, eta ez alderantziz.

Hala ere, berriki argitaratutako ikerketak² bat datoz esatean Espainiako estatuan zerga sistemak eragin berbanatzaile txikia duela nabarmentzen eta ingurune ekonomikoko herrialdeetan baino mugatuagoa dela; horregatik, ia ez du laguntzen eskura dagoen errentaren banaketaren desberdintasuna murrizten zergen ondoren.

Nabarmena da Hego Euskal Herriko lurraldeetako politika fiskalaren ezaugarriak Estatuarenak bezalakoak direla: diru-bilketarako ahultasuna eta eragin berbanatzaile apala. Eta esparru batzutan "politika fiskalaren porrotari" buruz hitz

¹ 2017ko udal sarreraren likidazioaren inguruko datuen faltan, irizten diogu ez duela bere pisua aldatu zerga-egituran azken hiru urteen batzbestekoarekiko.

² J. López Laborda, C. Marín González y J. Onrubia: "Observatorio sobre el reparto de los impuestos entre los hogares españoles", Estudios sobre Economía Española (FEDEA) || J. Onrubia y M. C. Rodado: "Papel redistributivo del sistema fiscal", Ekonomiaz .

egitea nahiago izan arren, zehatzagoa litzateke esatea ez dagoela borondate politikorik berbanatzaileagoak izango diren zerga-sistemak diseinatzeko.


Kontsumoaren gaineko zergak erregresiboak dira, zergen egituran duten pisua oso handia da, eta gainera, goranzko joera du.

Zeharkako zergak portaera erregresiboa dute errenten banaketan desberdintasuna handitzera eramaten dutelako eta guzti hauen artean BEZ nabarmentzen da diru-bilketan suposatzen duen bolumenagatik.

Zergen banaketaren inguruko Behatokiaren azken txostenaren³ arabera, Estatuan diru-sarrerak apalenak dituen etxeen %20ak, BEZagatik jasotzen duen zama fiskala bere diru-sarreraren %15,6koa da, %1 aberatsenak BEZean bere errentaren %3,9 ordaintzen baino ordaintzen ez duen bitartean.

Honen arrazoia da kontsumora bideratutako errentaren proportzioa baxuagoa dela zenbat eta altuagoak izan lortutako sarrerak. Kontrara, etxerik pobreenek euren sarrera murriztu guztiak (edo ia guztiak) bideratu behar dituzte oinarritzko produktuen kontsumora; eta horregatik, jasaten duten ahalegin fiskala euren errenta mailarekiko, altuagoa da etxe aberatsenetan baino.

Hego Euskal Herriko zerga zuzen eta zeharkakoen pisu erlatiboa Hego Euskal Herrian



Iturria: Norberak egina.

Hego Euskal Herrian tributu kontzertatuengatik diru-bilketa aztertuz konstatatzen dugu zerga zuzen eta zeharkakoen pisua %46 eta %54koa dela, hurrenez hurren.

Hortaz, Hegoaldean modu argian gailentzen dira zeharkako zergak zuzenen gainetik, eta desoreka Estatukoa baino sakonagoa da. Modu logikoan, zeharkako zergen pisua handitu ahala handiagoak dira sisteman sartutako ondorio erregresiboak.

³ FEDEAK argitaratutako ikerketa, politika publikoetan eragiteko helburuarekin ikerketa sozioekonomikoan ari den fundazioa. Banka handiak eta Estatuko multinazional handienek bultzatzen dute, eta baita Espainiako Bankua edo Madrilgo Burtza bezalako erakundeek.

Nazioartean orokortu egin da zeharkako zergetara gero eta karga fiskal handiagoa eramateko joera. Eta norabide honi jarraitzen dio Hegoaldeko politika fiskalak, honek esan nahi duenarekin, gero eta urrunago gaude bidezkoagoa izango den zerga-sistema bat zehaztetik.

Kotizazio sozialak ere fiskalki erregresiboak dira

Kotizazio sozialak (hemen zerga bidezko sarreratzat jotzen ditugunak) bihurtu dira zerga sistemaren diru-bilketaren iturri nagusia. Euren gainean erortzen da Gizarte Segurantza Sistemaren finantzazioaren pisua.

enplegu bolumenak, kotizazio tipoek eta soldatek zehazten dituzte kotizazio sozialengatiko sarrerak, kotizazioaren oinarri direnak.

Baina kotizazioarako gehieneko oinarriak daudenez, tope horretatik gora geratzen den soldataren zatia salbuetsita geratzen da eta ez du Gizarte Segurantzara kotizatzen. Horregatik, soldatarik altuenek, benetan, kotizazioengatiko tipo efektibo apalagoa jasaten dute, gainera, behera egiten du honek soldatengatiko irabaziek gora egin ahala.

Horrela, kotizazioen eraginak ere ondorio fiskal erregresiboak sortarazten ditu.

PFEZak errenta-desberdintasuna murrizten laguntzen du, baina lanaren errentetan datza zergaren progresibotasuna

Pertsona Fisikoei Ezarritako Zergak (PFEZ) ere diru-bilketa bolumen esanguratsua ematen du, bere ezaugarri nabarmenena progresibotasuna izan arren.

Honek esan nahi du PFEZak zerga-tipo altuagoa ezartzen diela errentarik altuenei, eta horrela lagundu egiten duela zergen ondoren eskura dagoen errentaren banaketaren desberdintasuna murrizten.

Hori bai, laneko errentak etxeetako diru-sarrera nagusia diren neurrian, logikoki, PFEZak zergapetutako errenta pertsonalaren zatirik garrantzitsuena ere baidra. Eta gainera, kontutan hartzen badugu kapitaleko errentek jasotzen duten trataera fiskala ez dela lanaren errentena bezain progresiboa, esan dezakegu PFEZaren progresibotasuna lanaren gaineko errentetan datzala nagusiki.

EAEko Zerga Koordinaziorako Organoak argituratutako azken estatistika fiskalen⁴ arabera PFEZaren bilketaren %83,5 dator lanaren errentetatik.

Nafarroako foru ogasunak ez du hain informazio zehatzik ematen azken bilketaren jatorriaren inguruan, baina azken txosten estatistikoaren arabera aitortutako errenten %87 laneko errendimenduak dira.

Gainera, 2007an PFEZaren egitura aldatu zenetik, kapitalarengatiko errendimenduak zergaren tarifa progresibora lotuta egon ez zitezen, errenta hauek (aurrezkoak ere deiturikoak) pribilegiozko trataera fiskala jasotzen duten eta laneko errentena baino mesedegarriagoa.

Jatorriaren arabera, kapitala edo lana, errentei ematen zaien trataera fiskalean ematen den diskriminazio honek ekitate eta progresibitate printzipioak haustea ekarri zuen, euren osotasunean inoiz berrezarriak izan ez diren printzipioak.

⁴ EAEko Ogasuneko Urteko Txosten Bateratua (2016)

Egun, EAEko laneko errentek eskala progresibo baten arabera ordaintzen dituzte zergak, errenta mailaren arabera igoz doazen zerga-tipoekin, %23tik %49ra bitartean daudenak. Kontrara, kapitalaren etekineterako tramo gutxiago duen beste tarifa bat ezartzen da, %20tik %25ra bitartean dauden zerga tipoekin.

Nafarroan⁵, lanaren errentak %13tik %52ra doazen zerga-tipoak dituen eskala bati lotuta daude. Bien bitartean, %20 eta %26aren artean kokatzen da kapitalen errendimenduei ezarri ahal zaien tipoa.

Lurraldeen arteko lehia fiskalak, iruzurrak eta hau mosteko borondate politiko faltak sarrera fiskalen eskandaluzko galera sortarazten ditu

Delitu finantzario, Ebasio eta Elusiorako Batzorde Bereziak (TAX3), txosten bat egin du berriki enpresa handiek eta norbanako aberatsenek euren betebeharrak fiskalei izkin egiteko erabiltzen dituzten mekanismo nagusiak zehaztuz.

Kasu batzutan delituez ari gara, hala nola BEZaren iruzurra muga-arteko merkataritza operazioetan.

Baina injeniaritzako fiskaleko beste jardura batzuk ere identifikatzen ditu, araudiarekin dagoen LAXITUDEA eta hutsune legalak probestuz ahalik eta gehien txikitu nahi dutenak zergak ordaintzea, indarrean dagoen legediaren babesean.

Hala ere, txostena harago du eta salatzen du EBko kide diren estatuek ez dutela nahikoa borondate erakusten zerga ihesa, elusio fiskala eta bestelako delitu finantzarioekin amaitzeko.

Honen inguruan, TAX3 batzordeak "pantaila enpresak" debekatzea aholkatzen du, betebeharrak fiskala tributazio nulua edo oso apala duten lurraldeetara transferitzeko erabiltzen baitira, "paradisua fiskal" moduan ezagunagoak direnak.

Gainera, EBko zazpi herrialde zuzenean aipatzen ditu (Belgika, Zipre, Hungaria, Irlanda, Luxenburgo, Malta eta Herbehereak) euren zerga sistemek mundu mailako zerga-planifikazio erregresiboa errazten dutelako, iruzur masiboaz aritzeko eufemismoa.

Txostenaren beste atal batean batzordeak aitortu egiten du globalizazioak eta digitalizazioak aukera berriak irekitzen dituztela araudiaren arabera negozio baten helbide sozial eta fiskala aukeratzeko. Eta aholkatzen du nazioarteko koordinazioa hobetu beharra dagoela zerga-oinarriaren higadura handiagoa sortzen duten jarduerak ekiditeko.

Honekin lotuta, batzordea kezkatuta dago estatu edo lurraldeen arteko lehia fiskalaren ondorioengatik. Eta baieztatzen du, estrategia horien ondorio moduan, enpresen irabaziaren gaineko zergaren tipo nominalak modu nabarmenean egin duela behera EB guztia, 2000an %32ko zen batzbestea, eta 2018an, %21,9.

Hego Euskal Herriko foru ogasunek ere parte hartu dute enpresei zergak jaisteko lasterketa ero honetan, inbertsio berriak erakartzeko aitzakiarekin.

Baina sozietate zergaren tipoak behin eta berriro jaisteaz aparte, oroitzen dugu dedukzio eta BONIFIKAZIO fiskal ugari dagoela, modu esanguratsuan jaisten dutenak zerga honengatik enpresek benetan ordaintzen duten tipo efektiboa.

EAEko Ogasunaren Urteko Txosten Bateratuaren arabera, zerga 2016an EAEn aitortu zuten enpresei ezarri zitzaizkien batzbesteko tipo nominala %25,6an kokatu zen, gutxi gora-behera. Baina benetan ordaindu zen tipo efektiboa %20koa izan zen.

⁵ Nafarroan indarrean dagoen PFEZ zergapetzeko grabamenak ezin dira zuzenean EAEn ezarritakoekin konparatu, zergaren araudia eta bere egitura bera ere desberdinak direlako

Nafarroan, 2017ari dagokion sozietate zergaren likidazioarekin, ikusten dugu ezarri den batzbesteko tipo nominala %25,7koa dela. Baina behin BONIFIKAZIO ETA DEDUKZIO FISKALAK kenduta, %15ean gelditzen da Nafarroako araudira lotutako enpresek ordaintzen duten tipo efektiboa.

Beste alde batetik, estatistika ofizialek baieztatu egiten dute, gure herrialdean enpresek trataera fiskal hobea jasaten dutela gure inguru geografiko eta ekonomikoan baino.

EAEen araudi forala ezartzen zaien enpresen kasuan %19koa da batzbesteko tipo efektiboa. Bien bitartean, estatuko araudia ezartzeko betebeharra duten enpresetan %26koa da batzbestean ordaintzen den tipo nominala.

EAEn sozietate zergaren tipo nominal eta efektiboa

	Araudi forala	Araudi estatala
Batzbesteko tipo nominala	%25,2	%27,8
Batzbesteko tipo efektiboa	%19	%26

Iturria: EAEko Ogasuneko Urten Txosten Bateratua (2016)

ONDORIOAK

Desberdintasuna, pobrezia eta bazterketa soziala ez dira ekidin ezin den FATALITATEA, baina injustizia hauek guztiekin amaitzeak exijitzen du erreforma berbanatzaile sakonak egitea politika publikoetan, bai gastuari bai diru-sarrerei dagokienez.

Horrengatik, ezinbestekoa da ekitatea txertatzea eragin adierazle moduan politika ekonomiko eta sozialak diseinatu eta ebaluatzerako orduan, horrela aurreikusi ahal ditzagun dagoen desberdintasun maila nolako eragina izango dute eta neurri zuzentzaileak sartu ahal izateko.

PROPOSAMENAK ERREFORMA FISKAL BERBANATZAILE BATERAKO

- Presio fiskala igo Europako batzbestekoetara gerturatzeko, baina zergaren karga enpresa handietan, errenta handienetan eta ondare handietan eror dadin.
- Diru-bilketaren pisua zeharkako zergetara, bereziki BEZera, eramateko joera zuzendu, fiskalki neutrala dela eman arren ahalegin fiskal handiagoa eskatzen duelako errenta baxuenak dituzten pertsonentzat.
- PFEZean ekitate printzipioa berreskuratu errenta guztiek trataera fiskal berdina izan dezaten, laneko etekina, kapitalarena edo ondarearengatiko irabazia izan.
- PFEZaren progresibitatea handitu tramoen kopurua eta errenta altuenei ezarritako zerga-tipoak handituz.
- Sozietate zergaren zerga-tipoak atzera bota.
- Dedukzio, hobari edo bestelako onura fiskalak kendu, enpresei itxuraz eman zitzaizkien helburuak betetzen ez dituztenean.

- Aberastasunaren gaineko presio fiskala blindatu, ondare handien pilaketa eta transmisioa zergapetzen duten figura horiek kendu edo ahultzeko presioen aurrean.
- Ondarearen gaineko zerga berraztertu eta pilatutako ondasun guztiak zergapetu, enpresetako partizipazioak barne.
- Gizarte segurantzara kotizatzeko gehienezko topeak kendu pentsioetara bideratutako baliabideak handitzeko.
- Paradisu fiskaletan kokatuta dagoen sozietate ororekin edozein merkataritza-harreman debekatu.
- Iruzur fiskalaren kontrako langile eta baliabideak handitu.